

ARTIUM

Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

Vitoria-Gasteiz

www.artium.org



VIOL_NCIA
INVISIBLE E

INDARK_RIA
ISILA

Erakusketa

Indarkeria isila

Komisarioak: Blanca de la Torre, Zoran Erić, Seamus Kealy

Inaugurazioa: 2014ko irailaren 12an, ostirala, 20.00etan

Iparra aretoa, 2014ko irailaren 13tik 2015eko urtarrilaren 11ra

Artistak: Kader Attia, Itziar Barrio, Ursula Biemann, Rossella Biscotti-Kevin Van Braak, Sarah Browne, Declan Clarke, István Csákány, Willie Doherty, Harun Farocki, Daniel García Andújar, Dejan Kaludjerović, Vladimir Miladinović, Locky Morris, Adrian Paci, Christodoulos Panayiotou, Garrett Phelan, Nikola Radić Lucati, María Ruido, Francesc Ruiz, Jonas Staal, Nedko Solakov, Zoran Todorović, Milica Tomić

Proiektzio-programa: Iratxe Jaio, Francisco Ruiz de Infante, Pepo Salazar, João Salaviza, Ferhat Özgür, Jesse Jones, Pavel Bräila

Jarduerak:

- ✓ Irailaren 12an, ostirala: 18.00etan, bisita gidatua Blanca de la Torreren eskutik, Artiumen Adiskideentzat bakarrik; 18.30ean, de Blanca de la Torreren, María Ruidoren eta Francesc Ruizen arteko solasaldia; 20.00etan, erakusketaren inaugurazioa
- ✓ Irailaren 13an, larunbata: 12.00etan Zoran Erić-en, Vladimir Miladinović-en, Nikola Radić-en eta Dejan Kaludjerović-en arteko solasaldia

Argitalpenak:

- ✓ Erakusketaren gisa (sarrera, artelanak eta artistak)
- ✓ Vitoria-Gasteizko eta Belgradeko erakusketen argitalpena, bi egoitzetan emandako hitzaldien sorta hautatu batekin

Erakusketaren ekoizeak: Artium (Vitoria-Gasteiz) eta MoCAB (Belgrad)

Babesleak: Arabako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzza

Laguntzaileak: Culture Ireland; British Council Northern Ireland; ProHelvetia, Swiss Arts Council; Instituto Cervantes; Forum Austria; Goethe Institut

Art
ium

Proiektu honetan eguneroko «indarkeria isila» aztertu nahi da, etxean eta lanean egunez egun egiten eta adierazten den eran; administrazioaren eta burokraziaren indarkeria; publizitateko eta komunikabideetako ikusizko indarkeria. Eta horrekin batera, baita sektarismo eta etsaitasun modu sotil batzuk ere, duela gutxiko gertakizun historikoetatik abiatuta. (...)

Horrek ez du esan nahi erakusketak indarkeria modu nabarmen eta orokor horiek (terrorismoa, gerra, etniagatiko suntsitzea eta genozidioa) esplizituki saihesten direnik, baizik eta ez dela nagusi erakusketaren erreferentzia-esparruan, aitzitik, indarkeria kultural eta garaikidearen modu batzuen eta besteen gainera jaurti nahi da aldi berean argia.

Sarrera (erakusketaren gida)

Artiumek *Indarkeria isila* erakusket aurkeztu du

- ✓ la hautematen ez diren baina etxean, lanean, administrazioan, kulturean... agertzen diren eguneroko indarkeria-moduak aztertzen dira erakusketan
- ✓ Artiumen eta Belgradeko MoCAB-en artean ekoiztutako erakusketa honetan europar Batasuneko hogeita hamar artista baino gehiagoren lanak bildu dira, espainiarrenak eta serbiarrenak, batik bat.
- ✓ Bideo-proiektzio programa batek eta fenomeno hau aztertzeko egingo diren bi mahai-inguruk osatzen dute *Indarkeria isila*

Artium, Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoak *Indarkeria isila* erakusketa aurkeztu du (Iparra aretoa, 2014ko irailaren 13tik 2015eko urtarrilaren 11ra), egungo nazioarteko artearen ikuspuntutik eguneroko indarkeria moduei buruzko gogoeta bat, ia hauteman ezinak, baina maila globalean etxeko, laneko, administrazioeko, kulturako eta abarretako esparruetan agertzen dena. Artiumek eta Belgradeko Arte Garaikideko Museoak (MoCAB) elkarrekin ekoiztutako erakusketa honetan Europako Batasuneko hogeita hamar bat artistak parte hartu dute, eta batzuek — María Ruido, Francesc Ruiz eta Daniel García Andújar, kasu— proiektu honetarako espreski egin dituzten artelanekin, gainera. Erakusketa osatzeko, irailaren 30etik aurrera gaiarekin lotutako bideo-sorta bat proiektatuko da. *Indarkeria isila*-ren komisarioak Blanca de la Torre, Zoran Erić eta Seamus Kealy izan dira; erakusketak Arabako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren babesa izan du eta Culture Ireland; British Council Northern Ireland; ProHelvetia, Swiss Arts Council; Instituto Cervantes; Forum Austria eta Goethe Institut erakundeen laguntza.

Indarkeria isila erakusketa Euskal Herriak, Irlandak (Ipar Irlandak batez ere) eta Serbiak osatutako testuinguru geo-politiko batean sortu zen, estereotipoen arabera indarkeriarekin eta beldurrarekin lotzen diren tokiak. Baina testuinguru hori irudi estereotipatu hori gainditu nahi duen proiektu baten atze-oihala besterik ez da, eta esparrua Europara eta Nazioartera zabaldu da. Horretarako, erakusketa «indarkeria isilaren lurralde ezkutuetaraino» barneratu da, «ahalmen orokortzailea duen arazoa baita». Gonbidatutako artisten lanetan islatzen den edota ikertzen den indarkeriak «baldintza sozioekonomikoetan gertatutako aldaketaren baten ondorioz sortutako hizkuntzari eta irudikapenari buruzko alderdiak» jasotzen dituzte, eta «norbanakoen eta eragile geopolitikoaren aurkako indarkeria kultural baten abiatzaile gisa hauteman daitezkeen politikak».

Helburu hori lortzeko, indarkeria isilaren adierazpen horietako batzuk islatzen dituzten lanak aukeratu dituzte komisarioek. Ursula Biemann suitzarraren *Black Sea Files* (2005) lana, esate baterako, Caspio itsasoaren inguruko ikerketa-proiektu bat: munduan dagoen petrolio ateratzeko toki zaharretakoa, non protagonistak oliobidearen inguruan bizi diren bigarren mailako aktoreak diren. Edota Daniel García Andújar-en *El capital. La mercancia* (2014), Interneten azpi-mundu ezkutuearen inguruko bere esperientzia jasotzen duena, era guztietako legez kontrako eta ezkutuko jarduerekin lotua. Edota Jonas Staal holandarraren *New World Summit* (2013), non demokraziaren jarduna berriz asmatzeko esparru gisa arakutzen baitu artearen alorra.

Aurrerago, bisitariak beste artelan batzuk aurkituko ditu, besteak beste, duela gutxi hil den Harun Farocki artista eta zinemagile alemanaren *In-Formation* (2005), egunkari, testu-liburu eta eskolako beste argitalpen batzuetatik ateratako diagramen bidez osatutako bideo batekin Alemaniako immigrazioaren historia berregiten duena. María Ruido galiziarren *The Dream Is Over* (2014) «neko-politika»-ri buruzko bideo-instalazioa, inguru batzuetan Europako immigrazio-politikari ematen zaion izena. Nedko Solakov-en *Negotiations* (2003), Tel Aviv-en egin zuen erakusketa bat zela-eta israeldar eta palestinar agintariekin izandako elkarrizketei buruzko beste bideo-instalazio bat. Adrian Paci albaniarren *Believe Me, I'm an Artist* (2000), artistak Italiako poliziakide batekin izandako elkarrizketa erakusten duen bideo bat; izan ere, hurrez abusatu izanaren susmoa zuen poliziakideak haren alabak bizkarrean albaniar pasaportearen irteera-zigilua zutela agertzen ziren lan bat zela-eta.

Francesc Ruiz katalanak *Corsica Newsstand* (2014) instalazioan komunikabideek lurralde baten irudi estereotipatu bat sortu eta iraunarazteko duten gaitasuna aipatzen du. Locky Morris-en neurri handiko argazki batean hiriko inguruak emozioetan eta jokabideetan duen eragina islatzen da. Kader Attiaren *Repair Analysis* (2013) piezan hutsegite batzuk erabat konpontzeko ezintasuna, arrasto iraunkorrak uzten baitituzte. Konpontzearen keinua, berriz, aurre egiteko modu gisa interpreta daiteke.

Declan Clarke irlandarraren pelikula batekin (*Group Portrait with Explosives*, 2014), amaitzen da erakusketa. Bertan, Txekoslovakia ohia eta South Armagh, Irlandako Errepublikarekin muga egiten duen Ipar Irlandako eskualdea, lotzen ditu: lehendabizi, txekiar traktoreek eskualdeko nekazaritzaren garapena ekarri zuten eta, gero, lurralde hartan egindako armak IRAren eta britainiar armadaren arteko gatazkan erabili ziren. Proiekzio horren aldamenean, Willie Doherty ipar irlandarraren bideo-instalazio batean (*Ancient Ground*, 2011) ezaba ezin daitezkeen giza-dramen arrastoak jasotzen dira.

Indarkeria isila osatzeko, irailaren 21etik aurrera Ekialde-Behekoa aretoan João Salaviza, Ferhat Özgür, Pepo Salazar, Iratxe Jaio eta Francisco Ruiz de Infante artisten lanak proiektatuko dira, besteak beste, etengabeko sokan. Eta azkenik, irailaren 12an, ostirala, eta 13an, larunbata, erakusketaren gaiaren inguruko solasaldiak egingo dira, lehendabizikoa Blanca de la Torreren, María Ruidoren eta Francesc Ruiz-en artean, eta bigarrena, Zoran Erić-en, Vladimir Miladinović-en, Nikola Radić-en eta Dejan Kaludjerović-en artean. Mahai-inguru horietan eta joan den udaberrian MoCABen egin zirenetan esandakoa eta bi tokietako erakusketen argazkiak bilduko dituen argitalpen bat egingo da, izenburua, nola ez, *Indarkeria isila* izango duena.

Artiumen ikusgai

Herri-aitxorra (errealitate-ekonomiak). Artium Bilduma
2014ko irailaren 14 arte

Greta Alfaro. *Still Life with Books*. Praxis programa 2014. *Less Poetry*
2014ko irailaren 21 arte

Nobela grafikoa: salaketa eta gizarte-kritika. Liburu erakusketa
2014ko urriaren 31 arte

Grey Flag 2014. Javier Arce (); Sandra Gamarra (*NSEO*)

Zentro-museoaren ordutegia

Asteartetik ostiralera: 11.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 20.00etara
Larunbatak, igandeak eta jaiegunak: 11.00etatik 20.00etara (etengabe)
Jaiegun ez diren astelehenak: itxita

Tarifa orokorra: 6 €

«Zuk nahi duzuna» tarifa*:

- Urteko asteazken guztietan
- Erakusketa bat inauguratu eta hurrengo asteburuan
- Ikasleak, langabetuak, erretirodunak eta 14 urtez behekoak

*«Zuk nahi duzuna» tarifa: Zure esku dago ordaintzen duzun eta zenbat. Emandako dirua programak garatzeko eta zentro-museoari eusteko erabiliko da.

Urteko txartela: 10 €

Aukeratutako egunetik aurrera urtebetez erakusketak ikusteko aukera ematen du.

Liburutegi eta Dokumentazio Zentroaren ordutegia

Astelehenetik ostiralera: 11.00etatik 14.00etara eta 16.00etatik 19.30era
Larunbatak: 10:00etatik 14:00etara
Igandeak: itxita
Sarrera doan